

ITZULPENA KONTUZ! ABUZZTUA 11AN

1. KONTUZ Kontsumitzaile, erabiltzaile eta zergadun elkarteak prentsaurreko honen bitartez iragarri nahi du, EZ diola helegiterik jarriko Nafarroako Kutxa eta Banca Cívica auzia behin behinean ixteko, Auzitegi Nazionalak plazaratu duen autoari. Erabaki honek suposatzen du, auzia behin betiko itxita geldituko dela, fiskaltzak edo bestelako akusazioak beste helegiterik aurkezten ez badute behintzat. Eta hori bai, betiere, UDEF-ek Miguel Sanz eta Enrique Goñiren ondareei buruz zabalik duen ikerketen ondorioen zain.

Gogoeta sakona egin dugu, eta erabaki honen azalpenak oinarri garbia du: Madrilen ia bi urtez luzatu den periplo antzueren ondoren, Nafarroako Kutxaren desagerpenari buruzko ikerketak Nafarroara itzuli beharko luke. Ez zukeen Nafarroatik inoiz atera behar izan. Eta puntu honetaraino iritsita, horretarako benetako aukera bakarra Auzitegi Nazionalaren bide judiziala ixtea da, honek argitu gabeko hutsune nabarmenak dituen arren (gero azalduko ditugun hutsuneak).

Auzitegi nazionaleko bide hori itxi beharra dago, Nafarroan nahikoa bermerekin zabal dadin erakundeen ikerketa bidea.

Guretzat, erantzunkizunetik hartutako erabakia da. Gure iritziz, iritsi da garaia, Nafarroako Kutxarekin gertatutakoa argitzeko lidergoa, aldaketa politikoaren erakundeek har dezaten. Haien esku utziko dugu gure lekukoa.

2. Nafarroako Kutxak izan zuen amaieraz asko dago argitzeko oraindik. Bidean gelditu dira diru askotako afera garrantzitsuak: besteak beste, artelan eta koadroen desagerpena, Diario de Navarrari eskainitako mailegua, Caja Burgos-eko zuzendariaren, Arribas jaunaren ikerketa judiziala, Nafarroako Kutxako zuzendari ohien soldata eta pentsio funtsa apartak, Washington, etabar... Gaurkoan, datu berriak eman nahi ditugu ezagutzera, ikerketa xehetu eta sakona beharrezkoa dela frogatzeko. Auzitegi Nazionalen KONTUZek etengabeko ekinez, lortu dituen datuak. Beraz, epailearen eta Auzitegi Nazionaleko fiskaltzaren esku dauden datuak. Zenbait kasutan justifikagarriak eta seguru "legezkoak" izanen diren datuak, baina herritarren aurrean ongi azaldu beharko direnak, bankuaren negozioarekin zerikusirik ez dutelako. Adibidez, ardo erosketan eginiko gastuak, urdaiaspikoetan, luxuzko kotxeetan, bidaietan eta bost izarretako hoteletan. Eta noski, faktura potoloak utzita lagunen enpresatan. Hau guztia Nafarroako Gobernu eta Espainiako Bankua, teoriaran, dena ikuskatzen eta gainbegiratzan ari ziren bitartean.
3. Prentsaurreko honen bidez biziki eskertu nahi dugu gure talde juridikoak eginiko lana. Talde honek jo eta ke jarraituko du, beraiei esker onartezinak diren jokabideen berri izan baitu gizarteak. Salaketa judizial hau gabe, jokabide deitoragarri hauek guztiak inoiz ez ziren ezagutuko, eta aitzitik, horren berri izan dute herritarrek: adibidez, Nafarroako Kutxako batzorde iraunkorraren bilerak, sortzaileen batzordearenak, beren kideak itzuli behar izan zituzten dieten aferak... Horregatik, Kontuz-eko kideei bihotzez eskerrak eman nahi dizkiegu, Iruñean 30 mila pertsona kalera ateratzeko gai izan direlako. Era berean, Kontuz-eko ikerketa kazetaritza lanean aurrera egiteko laguntza eman diguten pertsonen eman nahi dizkiegu eskerrak. Jatorri ideologiko eta profetsional anitza eta oso ezberdina duten pertsonak dira. Pertsona asko gainera. Honenbestez, Kontuz-ek aurrera jarraituko du. Arro gaude, gure lurraldearen gestioa hartu

ITZULPENA KONTUZ! ABUZTUA 11AN

duten indarren batasuna errazteko egin dugun lanarekin. Pozik gaude, herritarren haserrea bideratu dugulako, gardentasun eskaria eta ardurak hartzeko exijentzia modurik baikorrenean zabalduz.

Pozik eta arro... Izan ere, nork irudika zezakeen duela lau urte Sanz, Barcina eta Jimenez orain dauden tokian egonen zirela? Eta horiekin batera eroriko zela beren bezero-lagun errejimena ere.... Ildo horretan uste dugu Kontuz-ek bere ekarpen garrantzitsua egin duela, dagokion herri mugimendu izaeratik.

4. Azkenik, eskerrik asko komunikabideei, inongo salbuespenik gabe, azken urte hauetan eskaini diguzuen arretagatik. Barkatu, zenbaitetan, merezi duzuen harrera eskaini ez badizuegu ere. Baina jakin badakizue, baliabide urriko mugimendua izan garela. Zuen lanik gabe, hau ez zitzakeen posible izanen.